



AKTA

Bilera mota: MINTEGIA	Ikasturtea: 2021-2022	Bilera zenbakia: 7
Eguna: 2022-04-26	Ordua:14:30-16:30	Tokia: ORDIZIAKO BERRITZEGUNEA

BERTARATUAK:

Arrate Zubillaga (Iparragirre BHI)
Arrate Leunda (Murumend HLHI)
Reme Arrondo (Beasain BHI)
Xabier Meabe (Andramendi Ikastola)
Eider Lardizabal (Olazabal BHI)
Jone Legorburu (UGLE)
Amaia Etxeberria (Domingo Agirre HLHI)
Josu Zaloña (Oianguren BHI)
Lore Oyarbide (La Salle San Jose)
Karmele Gisasola (La Salle Legazpi)
Naiara Azkona (Urdaneta HLHI)

ETORRI EZINA ADIERAZI DUTENAK:

AZTERGAIK:

- 1- Saioa kokatu.
- 2- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua 2022-2026: deialdiak eta egin beharrak.
- 3- HNP proiektuetako helburuak konpartitzen.
- 4- IRALE 2022-2023
- 5- Norberak lekarkeena

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1. **Saioa kokatu.** Saioa hasterako ireki ditugu [Moodlea](#), [Sitesa](#), [Ulibarri webgunea](#), [Drive](#). Driven eta Moodlen daude saio honetan erabili diren materialak eta erreferentziak.

- 2- **HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA: deialdiak eta eginbeharrak**
Dagoeneko argitaratu eta eskura ditugu bai agindua eta bai barne ebazpena.

MAIATZAREN 5rako bidali eta egin behar ditugunak:

2. artikulua.- Eskabideak.

1.- Ulibarri Programan sartu edo jarraitu nahi duten ikastetxeek eskabidea egin behar dute, 2022ko apirilaren 6tik 2022ko maiatzaren 5era arte. Hori izango da eskabideak aurkezteko azken eguna.



1- Ulibarriren jarraipena eskatu

3.- Ulibarri Programan dauden ikastetxeak: 2022-2023 ikasturtean Ulibarri Programan jarraitu nahi duten ikastetxeek eskabidea egin beharko dute helbide honetan:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/ulibbarri-2022>

Eskabidearekin batera, honako dokumentua aurkeztu behar dute:

- Ikastetxearen hizkuntza-normalizazioko proiektua (2022-2026).
- Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak onartu behar du proiektua.

2- HNP proiektuaren ziurtagiria deskargatu eta bidali

3- **Ikastetxearen Organo Gorenaren onarpena.** Hau egiteko bertan ikusten den erudian klikatzea nahikoa da. Ikus behean:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SALA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

euskadi.eus

ULIBARRI 2022 - JARRAIPENA

* **Ikastetxea:**

Ikastetxearen hizkuntza-normalizazioko proiektua (2022-2026)
Seleccionar archivo Ninguno ...hivo selec.

Beste dokumentu batzuk
Seleccionar archivo Ninguno ...hivo selec.

* **Erantzukizuneko adierazpena**
 Proiektuak ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo ikastetxeko Eskola Kontseiluaren onarpena duela aitortzen dut

Oharrak

Bidali

Ondoren datozen betebeharrak **datoren ikasturtean 2022-2023** burutzekoak dira

1- 2022-2023 Ikasturteko Plana irailaren 30erako

3. artikulua.- Ulibarri Programan dauden ikastetxeek egin beharrekoak.

1.- Ulibarri Programan dauden ikastetxeek 2022-2023 Ikasturteko Plana eskegi beharko dute egoitza elektronikoko "nire eskabideak" atalean:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nire-eskabideak/>

Aurkeztuko epea: 2022ko irailaren 1etik 2022ko irailaren 30era.



2- 2022-2023 ikasturteko Memoria ekainaren 30erako:

2.- Era berean, 2023ko ekainaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean, 2022-2023 ikasturteko memoria eskegi beharko dute egoitza elektronikoko "nire eskabideak" atalean:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nire-eskabideak/>

ITUNPEKOEN kasuan jasotako diru-laguntzaren justifikazioa egin beharko dute:

3.- 2023ko ekainaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), ikastetxeko hizkuntza-normalizazioko teknikari arduradunaren (HNAT) diruz lagundutako liberazio-orduak estaltzeko kontratatutako irakasleen nominak aurkeztu beharko dituzte.

OHARRA:

Hainbat arazo egon dira HNproiektua idazterakoan edota idatzitakoa gordetzerakoan, hori dela eta, Joseba Ibarretzek Ulibarriko koordinatzaileak [bideo](#) bat egin zuen eta ikusi genuen. Hona hemen arazoaren aurrean hainbat konponbide:

- 1- **Ez erabili nabigatzaile bakarra behin baino gehiagotan webgunea irekitzeko**, beharrezko ikusiko balitz, adibidez aurreko lau urteko HNP eta berria ikusteko, hobe da bi nabigatzaile desberdin erabiltzea.
- 2- Kontuan hartu **batzuetan ordenagailuaren konfigurazioak ere eragiten duela**, beraz probatu beste batean ea arazoak jarraitzen duen.
- 3- Beste aukera bat da, **lorpen adierazleak luzeegiak izatea**, hauek laburtuz gordetzeko arazoak ekiditzen dira.
- 4- **Arazoarekin jarraituz gero CAUra deitze da onena**. Edozein kasutan ez da komeni azken egunerako uztea HNP idaztearena.

3- HNP proiektuetako helburuak konpartitzen.

Zein helburuak lehenetsi dituzue datozen 4 ikasturterako? Aukeratu eremu bakoitzeko helburu bat.

Bi talde osatu. dira Talde bakoitzak **bi eremu landuko ditu gutxienez**. Talde batek (HH-LH) 1. eta 2. eremuak, beste taldeak (BH-Lanbide) 3. eta 2.

Proposatu den prozedura:

Eremu bakoitzean bakoitzak aukeratu behar zuen **helburu 1**, eta hau azaltzeko 2 minutu izan ditu, partaide guztiok segidan. Galderak amaieran egitekotan geratu gara. Idazkaria eta denbora kudeatzailea adostu dira.



Prozedura ez da bere horretan bete baina oso interesgarri izan da sortu den elkarjartzea. Hona hemen talde bakoitzean atera diren helburu eta ideak :

HH-LH taldea

1- EREMUA: IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA ERA ERABILERA KOHERENTEAK

- Beasaingo ikastetxeekin euskara sustatu dadin elkarlana sustatzea.(Bailara osora zabaltzea proposatu da. (sites bat sortu, bilera bat antolatu).
- Berritzeguneko bilerak aprobetxatuz, elkarren arteko trukaketak eginez, hizkuntzaren normalizazioa jorratzea.
- Normalizaziorako bidean ikastetxeko estamentu guztien inplikazioa lortzea euskarapen erabileraren inguruan ezarritako irizpideak betez.
- Normalkuntza batzordea eta Organo Goreneko gurasoen ordezkarien arteko lotura sendotzea, hauek eragile bihurtuz.

2- EREMUA: ESKOLAKO KIDEAK ETA EREMU DIDAKTIKO METODOLOGIKOA

- Hezkuntza ziklo ezberdinetako ikasleak euskara eta euskal kultura ardatz duten ekintza ezberdinen bidez kidetzea.
- Euskal nortasuna sustatzea
- Ikasleak arlo akademikoan zein egoera ez formaletan komunikazio gaitasuna hobetzea, ekintza ezberdinak antolatuz eta baliabide ezberdinak eskainiz.

BH-LANBIDE TALDEA:

2- EREMUA: ESKOLAKO KIDEAK ETA EREMU DIDAKTIKO METODOLOGIKOA

- Ikasleek euskararekiko duten motibazioa areagotu, soziolinguistikako gaiak landuz.
- Ikasleen Euskara Batzordea sortu.
- Mailaz maila testuinguru soziolinguistikoa aztertu.
- Ikasleen Euskara Batzordea sendotu. Ikasleen inplikazioa lortuz.
- Ikasgelatik kanpo euskararen erabilera sendotzea: jolastokia eta jantokia. Ikasleen Euskara Batzordea inplikatur (3+4 DBHko ikasleak) eta neurketak eginez.
- Komunikatzeko gaitasuna dela eta, ikasle gehienek jariotasunez, egokitasunez eta zuzentasunez hitz egitea. EBT formakuntza jasoz.

3-EREMUA: FAMILIA ETA KOMUNITATEA

- Familia: Gurasoek euskararen transmisioan duten garrantziaz ohartarazi + Komunitatea: Udal Teknikariek harremanak sendotu.
- Gurasoen Euskara Batzordea sortu.
- Gurasoen Euskara Batzordea sendotu. Ikasturtean zehar gutxienez ekintza bat antolatu dezatela + Partaidetza kopurua zabaldu.
- Gurasoen harremanetan euskarari eman lehentasuna.



- Harreman irizpideak berrikusi + Ikasturte hasierako guraso bileren inguruan hausnarketa egin.
- Gurasoek euskararen transmisioan duten garrantziaz ohartarazi . (Askok, nahiz eta euskaraz jakin, erdarara jotzen dute).

Hizkuntzaren erabilpenaren arautzearen garrantziari buruz ere hitz egin dugu.

Normalkuntza Batzordearen kideak, eskolako hezkuntza-komunitateko edozein partaide izatearen aberasgarritasunaren inguruan hitz egin da. Normalizazioa guztioi eragiten digu.

Saretzearen premia ere azpimarratu da..

4- IRALE 2022-2023

Iraleko informazioa zabaldu da, ikastaroen nondik norakoak eta betebeharrak. Horretarako Driven dagoen [PPTa](#) erabili da. Gogoratu **epea MAIATZAREN 16A** dugula. Driven hainbat material eta argibide daude.

5- PRAKTIKA ONAK konpartitzen

Esperientzia interesgarriak eta praktika onak jasotzeko eta partekatzeko eskaera egin zaigu, hori dela eta Driven [plantila bat](#) jarri da **ikastetxe bakoitzak gutxienez esperientzia bat idatzi** dezan. Momentuz ez dugu eperik.

4- Norberak lekarkeena:

a. UDALTOP izen ematea

“Eskolak bakarrik ezin badu... Zer eta nola egin behar dugu udalerrian hobeto 16 urte bitartekoentzat hizkuntza politika egokia antolatzeko?” izenburu pean, adin-tarte horretako neska-mutilentzat hizkuntza politika egokia antolatzeko jarraibideak ematea izango da Udaltopen hamalagarren edizioko xede nagusia. **2022ko maiatzaren 12an eta 13an** – www.udaltop.eus –

[Egitarauak](#)

[Izen ematea](#) martxoaren 22tik aurrera zabalik dago, **maiatzaren 3ra bitarte.**

b. EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK deialdia kaleratzeaz da. Irten bezain pronto informazioa zabalduko da.

EGITEKOAK	Arduraduna	Noizko
<ul style="list-style-type: none"> - Ulibarrin jarraipena eskatu - Organo Gorenaren onarpena eta HNP 2022-2026 bidali. - IRALE informazioa zabaldu ikastetxean 		
HARTUTAKO ERABAKIAK:		HURRENGO BILERA Noiz: Maiatzaren 24a Non: BERRITZEGUNEAN